

<b>Berdintasun Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Eguna: 2016-01-14      Lekua: Santa Klararen Jauregia. Ordua: 17:00 -18,30

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbistazu

Gizatiar: Marisa Pedrero, Begoña Fernández

Mujeres con Voz: Luciana Davies

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Roda: Clara Lorenzo

Bildu: Arantza Gutierrez

Ciudadanos-Herritarrak: Jesús Ibarreche

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo

Udal Talde Sozialista: Josefina García

Talde Popularra: Susana De Cos

ELA: Elvira Lemona

Berritzegune: Ana Sofia Gutierrez Arnaiz

Kontseiluburua: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Aztergai-zerrenda**

- Aurreko akta onartzea
- Kontseiluaren prestakuntza
- IV. Berdintasun Plana
- 2016ko laneko plana
- Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman beharreko erantzun publikoaren protokoloa
- Martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, proposamenak
- Galde-eskeak

Batzarra hasi baino lehen, berdintasun zinegotziak esan du aurreko batzarrean argitu gabe geratu zela hiriburuetako berdintasun kontseiluetan alderdi politikoek parte hartzen duten edo ez. Bada, berretsi gura du Donostian, Gasteizen eta Bilbon parte hartzen dutela, modu batean edo bestean.

### **Aurreko akta onartzea**

Aurreko batzarreko akta onartu da.

### **Kontseiluaren prestakuntza**

Berdintasun zinegotziak esan du Kontseiluaren aurreko batzarreko iritzi guztiak entzun ondoren erabaki dela berdintasunari buruzko prestakuntza ematea. Halere, asmoa ez da prestakuntza bakarrik kontseilu honetan parte hartzen duten pertsonentzat ematea: titularrek ez ezik eremu eta talde bakoitzeko ordezkoei parte hartu ahalko dute, baldin eta prestakuntza-emaileak talde handiago bat kudeatu ahal badu.

Erantsi du Emakunderekin hitz egin dela, prestakuntza hori eman ahal duen jakiteko.

Berdintasun teknikariak esan du Emakunderen teknikariak ondokoa erantzun duela: aurretik berdintasunerako euskal legea jakitera ematen aritu ziren, baina printzipioz ez dute asmorik eskatzen duen udal bakoitzari prestakuntza berezia emateko, ez daukatelako horretarako gaitasunik. Hala eta guztiz ere, Getxoko Berdintasun Zerbitzuak azaldu dituen arrazoiak kontuan izanik, eskaera aztertuko du eta Emakunderen Zuzendaritzarekin kontsultatuko du.

Berdintasun zinegotziak planteatu du ordutegia erabaki beharko dela baina pentsatzen duela Kontseiluko kide gehienentzat hobe izango dela arratsaldean egitea.

### **IV. Berdintasun Plana**

Berdintasun zinegotziak jakitera eman du abenduaren 22an Gobernu Batzordeak Diagnostikoa eta IV. Plana egitea Oreka SL enpresari esleitu ziola. Irailaren 30era arteko epea daukate dokumentu bi horiek aurkezteko. Erantsi du, era berean, parte hartze metodologiarekin egingo direla.

III. Planaren ebaluazioa dagoeneko udalaren webgunean dago jarrita.

Roda eta Eskuz esku elkarteek adierazi dute ez dutela ebaluazioa inprimatu, orri asko direlako. Berdintasun teknikariak esan du inprimatutako kopia bana bidaliko diela elkarte guztiei.

## **2016ko laneko plana**

Berdintasun zinegotziak azaldu du Kontseiluan denbora luzeen egon diren pertsonen dagoeneko dokumentu hau ezagutzen dutela. Baina berriei azaldu nahi die Berdintasun Zerbitzuaren barruko agiri bat izan arren Kontseiluarekin konpartitzeko ohitura dagoela. Urtean zehar jorratuko diren esparruak jasotzen dira dokumentu horretan. Era berean, jakitera eman du beste urte batzuetan gai zehatz bati buruzko kanpaina egin ohi dela ohiko datetatik kanpo, baina aurrean ez dela hala egingo, Berdintasun Zerbitzuari lan handia emango dioten bi konturengatik: batetik, diagnostikoa eta IV. Plana egitea eta, bestetik, bi urteroko historia-beka, aurrean deitu behar dena.

Gero, berdintasun teknikariak alde aurretik Kontseiluko taldeei bidali zaien lan planaren edukia azaldu du.

## **Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman beharreko erantzun publikoaren protokoloa**

Berdintasun zinegotziak, hasteko behin, barkamena eskatu du protokoloaren zirriborroa gaztelania hutsean bidali delako. Berak azaldu duenez, goiz erdian amaitu dute idazten eta ez da euskaratzeko astirik egon. Baina euskarazko kopia eginda dagoenean bidali egingo da.

Gero gogorarazi du protokolo honen helburua dela indarkeria-kasuetan nolako erantzun instituzionala eman behar den zehaztea. Izan ere, orain arte Getxoko Udalak ez du jarduteko modurik finkatu. Gauzak zehaztu beharra dagoela uste du. Azaldu duenez, delitu izaerako kasu hauetan, emaitza heriotza denean, Erakunde arteko Batzordearen protokolo bat dago, Berdinsareak bere gain hartu duena. Protokolo horren arabera, gertaerak egiaztatzen direnean Jarraipen Batzordeko lehendakaria harremanetan jarri behar da biktima erroldatuta dagoen udalarekin, eta udal horrek osoko bilkura bat deituko du, adierazpen instituzional bat onesteko eta herritarrei gaitzespen-ekitaldi batera dei egiteko. Erantsi duenez, gutxienez bera zinegotzia denetik inoiz ez da protokolo hori gauzatu behar izan.

Jarraitzeko, azaldu du zehaztu beharreko gai batzuk azaltzen direla zirriborroan, adibidez Bozeramaileen Batzarrari zein kasutan dei egin behar zaion edo Kontseiluaren eta elkarten papera zein den. Eranskin bat gehitu da zalantzazko kasuetarako, hau da, informazio kontrastaturik ez dagoenerako baina, komunikabideek eskatuta, erantzunen bat beharrezkoa denerako. Azkenik, esan du iritziak eman daitezkeela e-mailez eta epea hurrengo Kontseilura arte luzatu ahal dela taldeetan eztabaidatu ahal izateko.

Berdintasun teknikariak proposamenaren edukia azaldu du, baita eztabaidatzeko proposatu diren gaietako batzuk ere.

### **Martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, proposamenak**

Berdintasun zinegotziak gogorarazi du dokumentu txiki bat helarazi dela, orain arte martxoaren 8rako egin diren kanpaina guztien zerrendarekin. Hitz egiteko txanda ireki du, taldeen proposamenen berri jakiteko.

Ciudadanos-ek kultur artekotasuna genero-ikuspegiz tratatzea proposatu du. Gasteizen egin den feminismo islamikoko tailerra jarri du adibide. Azaldu duenez, nazioarteko testuingurua ikusita, etorri den etorkin eta errefuxiatu oldearekin eta islamofobia gero eta zabalduago egonda, gai horri heldu behar zaio. Gaineratu du emakume batzuek beraiek nahi dutelako janzten dutela beloa. Era berean, purple washing politikak ekidin behar dira; izan ere, gobernu batzuek, euren politikak aurrera ateratzeko, emakumeak erabiltzen dituzte aitzakia gisa. Feminismo zuria ere saihestu behar da, hau da, emakume heterosexual, zuri eta ez migratuek gainerako emakumeen ordez hitz egitea. Azkenik, proposatu du egiten den jarduerak kultur artekotasuna kontuan izan dezala, eta ez prestakuntza-formatuan nahitaez: world cafe edo besteren bat izan daiteke.

Rodak kontziliazioa eta erantzukizun partekatua aztertzea proposatu du.

Gizatiarrek oraindik ez du proposamenik prestatu martxorako.

Eskuz eskuk erantzukizun partekatua ekarri du proposamen gisa, baina kultur artekotasuna jorratzeari ere ondo deritzo.

Bilgune Feministak uste du kontziliazioa eta kultur artekotasuna gai bateragarriak direla. Izan ere, emakume atzerritarrak dira hemengo emakumeen kontziliazioa ahalbidetzen dutenak, lan hori emakumeek lehen dohainik egiten zutelako eta orain zati batean kontratatzen ari delako. Uste du horrela ez zaiola patriarkatuari aurre egiten, baizik eta munduko emakumeak direla ugalketa-lanaren pisua daramatenak: batzuek dohainik eta besteek modu prekarioan. Uste du egoera hau gainditu behar dela, ez dela emakumeek sortu duten arazo bat, ezta beraiei bakarrik egokitzen zaienik ere hura konpontzea. Arazoari nola begiratzen zaion, borrokaren ikuspegia galtzeko arriskua dago. Izan ere, sistema da borrokatu behar dena, hau da, patriarkatu kapitalista, matxista eta hiltzailea, beti suertatzen baita mesedetuta.

Mujeres con voz elkarteak azaldu du beraiek ados daudela kultur artekotasunaz hitz egiteaz; arazoa da nola hitz egin. Bestalde, uste du agian denei ez zaizkiela interesatzen kolonialismo osteko feminismoei buruzko eztabaidak. Uste du genero-ikuspegiko kultur artekotasuna zurrumurruen aurkako estrategiarekin azter litekeela, martxoaren 8an baino hobe.

Ciudadanos-en ordezkariak dio Mujeres con voz-eko ordezkariak arrazoia duela: gehiago zehaztu behar da kultur artekotasunaz hitz egitea zertan datzan.

Berdintasun teknikariak azaldu du eskolako hurrengo ikasturterako tailerren bat egin gura zuela feminismo islamikoaz eta Mujeres con voz elkarteak ere gai hori jorratu duela.

Mujeres con voz elkarteak esan du zenbait jarduera egin dituztela Bidaya-rekin, Euskadiko emakume gazte musulmanen elkarteak, eta gogora ekarri du Kultur arteko elkarrizketetan, Jabekuntza Eskolaren barruan, gai horri buruzko saio bat egin dela.

Bilgune Feministak esan du zurrumurruek aurkako prestakuntzaren barruan tailer bat landuko dela zurrumurruek aurka, emakumeen ikuspegitik, eta parte hartzera animatu du jendea.

EAJren ordezkaria eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia denak esan du gai hori jorratzen ari direla Immigrazio Atalean.

Berdintasun zinegotziak adierazi du Berdintasun Zerbitzuak erantzukizun partekatua aztertzea proposatuko zuela. Gai hori hainbat urtez jorratu da berriazko kanpainetan, martxoaren 8tik kanpo, baina uste du garrantzitsua dela berriro heltzea auzi honi. Izan ere lan hori dohainik egiten dute emakumeek eta berdintasunik gabeko beste egoera batzuen oinarria da. Esan du ados dagoela Bilgune Feministarekin esaten duenean zurrumurruek aurkako estrategia badagoela hor; martxoaren 8a beste gauza batzuk lantzeko erabil dezakegu. Erantsi du erantzukizun partekatuz hitz egiteak beste gai batzuetara eramango gaituela nolana ere.

Berdintasun teknikariak proposatu du zaintza eta erantzukizun partekatua azter daitezela, baina, nolana ere, kontziliazioaz, zaintzaz, erantzukizun partekatuz eta kultur artekotasunaz hitz egin denez, uste du fokua non jarri zehaztu beharko litzatekeela.

Berdintasun zinegotziak erantzun du berak erantzukizun partekatuari begira jarriko litzatekeela, aukeran.

Bilgune Feministak esan du erantzukizun partekatua bakarrik aztertzen badugu familia-eskema klasikoaz hizketan amaituko dugula, familia heterosexualaz alegia. Bestelako familia-ereduak baztertuta geratuko dira, edo ez, lan-banaketan gertatzen diren prekariotasun-egoerak kontuan izanik.

Berdintasun zinegotziak esan du Berdintasun Zerbitzuak lokal bat erreserbatu duela Villamonteko Kultur Etxean, hitzaldi edo mahai inguru bat egiteko 9an, asteazkena, eta beste bat erreserbatuko duela hurrengo astean jarduera ludikoago bat egiteko.

Berdintasun teknikariak jakitera eman du zein jarduera aztertzen ari diren; zehazki, ipuin kontaketa edo monologo bat gaztelaniaz eta musika-jarduera bat euskaraz egiteko asmoa dago.

Bilgune Feministak galdetu du ze proposamen irten zen "Aktibatu zeure ahotsa" tailerretik, azaroan, Jabekuntza Eskolan. Berdintasun teknikariak azaldu du tailer berria egin nahi dela aurreko bietan parte hartu duten pertsonekin, eta beste emakume batzuek bat egin behar dutela eta ikasitakoa praktikatu, kalean performance kolektibo bat eginez. Tailerrean ahotsa ahalduntzea, gorputzaren presentzia, arnasketa ariketak, taldean ahotsa nola proiektatu, ahots-koru bat nola egin eta abarrekoak lantzen dira. Azaldu duenez, ebaluazioak oso onak izan ziren eta tailerrean bertan kalean zerbait egiteko ideia sortu zen. Berdintasun teknikariaren hitzetan, eskolako ikastaroetan parte hartzen duten baina gero martxoaren 8an edo azaroaren 25ean antolatzen diren hitzaldietan eta bestelako jardueretan parte hartzen ez duten emakumeak inplikatzeko aukera ona litzateke. Bilgune Feministak world cafe bat egitea proposatu du, jatorri ezberdinetako emakumeekin, eta adierazi du Immigrazio eta Berdintasun sailak elkarrekin irten beharko liratekeela martxoaren 8an.

Proposatu du martxoaren 8a elkarrekin antolatzea, iaz hasitakoarekin jarraituz, baina elkarte guztien eta Berdintasun Zerbitzuaren parte hartzearekin.

### **Galde-eskeak**

Bilduren ordezkariak galdetu du non egingo den Jabekuntza Eskolaren ikasturte amaierako topaketa.

Basaurin izango da, eta hurrengo urtean Getxon egingo da, sareko udalerrien artean txandakatzen baita.